



LIBURUA

Babesten gaituen itsasoa



ITSASO AMNIOTIKOA OIHANE JAKA

ELKAR, 2024

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Oihana Jakaren poema liburua ireki eta eskaintza bi aurkituko ditugu. Aitari bata, seme-alabei bestea. Aipagarria da, topatuko ditugun poemekin lotura zuzena baitute.

Liburuaren egiturak hiru atal ditu: *Hamaika urte*, *Hamaika hilabete* eta *Hamaika egun*. Hamaika zenbakia asko esateko modua ere bada euskaraz. Urte, hilabete eta egun, bata bestearen barruan sartzen diren denbora tartekak dira, eta liburuan aipatzen den matrioxkaren irudia sortu daiteke. Hiru atalak harilkatzen asmatu egin duela uste dut: irudi berdinei eman-dako esanahi desberdinen bitartez, besteak beste.

Lehenengo atalean *ni* poetikoak aita hil zenean zuen adinari egiten dio erreferentzia. Atal honetan aurkituko ditugun poemek galera goiztiar horrek utzitako arrastoari buruz hitz egiten dute, esaterako, azken poemako azken bi lerroetan: *Aitaren heriotzak libreago egingo nindukeen*, / *hain gazte izan ez banintz askatzeko*.

17. orriko poema ispilu modura idatzita dago. Goitik behera eta behetik gora esaldi berak erabiltzen ditu, eta hala, palindromo eder bat osatu du. Aitaren urtebetetze eguna ospatzen jarraitzen duen *ni* poetikoak ispiatze baten modura bizi du aitaren urtemuga eta formak edukia zoragarri biltzen duelakoan nago. Izugarri gustatu zait bere hildakok nola (a)gurtu ez jakitearen inguruan hausnartzen duen poema ere (20).

Bigarren atalean, *ni* poetikoak jaio aurretik galdu duen haurraren galeraz hitz egiten du. *Nora ote doaz jaio ez diren haurrak?* / *orain, etxe hutsa da nire sabela* (27). Bigarren haur baten haurdunaldiaz ere hitz egiten digu *ni* poetikoak hirugarren atalera salto egin aurretik: *Bi bihotz ditut / eta ez naiz munstroa*. / *Matrioxka bat bestearen barruan / horixe bakarrik*.

Hirugarren atala da luzeena eta hamaikagarren egunean ospitaletik etxera bueltatzeko denbora tartekak mugatzen du izenburua. Nahi ez bezala gertatu zen erditzeaz hitz egiten du: horrek eraginda-

ko min, orban eta zauriez. Galdutako haurraren ondoren jaiotzeak sortzen dituen zalantzez, orban hori ahazteko beldurraz eta abar. Irudi boteretsuak erabili ditu atal honetan autoreak: *Behinola / belarritik sartu zitzaidan olatua / hanka tartetik atera zen / uholdeka*. / *Arrain eta guzti* (57). Edo *amnesia jeta zegoen maskuria* (62). Batzuetan nahasgarria iruditu zait zeini buruz ari den edota ahotsa nori ari zaion berbetan.

Gustatu zait estiloa: tarteka zuzena eta gordina da, irudi eta metaforen erabilera ederra egiten du, eguneroko hizkuntza eta detaileak azpimarratzen ditu, hitz jolas ingenioak erabili... Ione Gorostazuren *Ez da erditzea* liburua gogorarazi dit, desberdinak izanagatik, gai batzuk izendatzeko beharra ikusten baitut bietan. Eta Karmele Igartuaren usaina ere hartu diot: itsasoaren irudiak hainbat esanahi nola hartzen dituen ikusita edota 65. orriko poema (*ez da berdin...*) horretan.

Itsaso horretan murgiltzeko gonbidapena luzatzen dizuet nik ere. ●